



ZURINE IGLESIAS

«Hona iristeko asko estutu behar izan dugu»

ANE SANCHEZ ETA XUBANE URIBARRENA
ARRAUN LAGUNAK-EKO ARRAUNLARIAK

Arraun lagunak-eko arraunlariak dira anoetarra eta lizartzarra; Euskotren Liga eta Kontxako Bandera irabazi dituzte bigarrenenez; emakumezkoen arraunarentzat Tolosaldea «erreferente oso positiboa» dela adierazi dute // **6-7**

Bi asteburutan luzatuko dira etzi hasiko diren Irurako jaiak

Irura Moretuz talde feministak izango du festei hasiera emateko ardura; indarkeria sexista kasuei erantzuteko protokoloa prestatu dute // **4-5**

Kultur emanaldiz betetako egitaraua, Tolosan


Urriaren 20tik urtarrilaren 3ra bitarte 15 emanaldi izango dira, Leidor aretoan eta Topic-en; haur, gazte nahiz helduentzako ikuskizunak izango dira // **2**

Usabal erabiltzen duten klub denboraldi hasiera

Hainbat herritako azpiegiturak erabiliz edo kalean ari dira euren jarduera burutzen // **3**

ehun #
FISIOTERAPIA

Tel.: 633 04 94 74
www.ehunfisioterapia.eus



ORIA  BEILATOKIA
TANATORIO

Usabal Ind., 12. 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com



Askola Etxebarrieta, Goiuri Ezeiza, Loyola Garmendia eta Edu Errondosoro, atzo Leidor aretoan egin zuten kultur programazioaren aurkezpenean. LEYRE CARRASCO

Arte eszenikoek Leidor eta Topic hartuko dituzte

Urriaren 20an hasiko da udazken-neguko zikloa, eta urtarrilaren 3ra bitarte 15 emanaldi eskainiko dituzte, haur, gazte zein helduentzat

Leyre Carrasco

Ikasturte berriarekin batera, bueltan da Tolosako udazken-neguko kultur programazioa. Urriaren 20an hasiko da, eta urtarrilaren 3ra bitarte, arte eszenikoaren hitzordu ugazatzen gozatzeko aukera izango da, Leidor aretoan nahiz eta Topic-en. Hain zuzen, 15 emanaldi izango dira guztira.

Horien artean, batetik, Berriketan konpainiaren bigarren sorkuntzaz gozatzeko aukera izango da: *Arima*. Berriketan konpainiaren esentzia, batez ere, «euskal kulturaren eta flamenkoaren arteko fusioa» egitea dela esan du Askola Etxebarrieta La Pulga Flamencoko sortzaileak, eta hori da, hain zuzen, azaroaren 3an, Leidorren egingo du tena.

Euskal Herrian tradizio handia duten txalaparta eta ttakun instrumentuekin uztartzen dituen ekitaldia da *Arima*. Etxebarrietak adierazi bezala, «gure ari-

ma, bihotz, energia eta barruan daramagun guztia botatzera gatz. Horretarako, Antonio Lizana musikariaren laguntza izan dugu produkzio musikalean eta Leonor Leal flamenko dantzariak, berri, koreografia egiten lagundu digu. Ikuskizunean, Miren Amurizaren, Ruben Sanchezen eta Aitziber Etxebarrietaren letrak izango dira ikusgai, eta horiekin zerbait esaten saiatu gara. Gizarte mailan kezkatzen gaituzten kontuak islatu nahi izan ditugu, errefuxiatuen krisia, esaterako».

Berriketan konpainiaren lehen sorkuntzarekin alderatuta, abeslari flamenkoa ez ezik, abeslari euskalduna, gitarra flamenkoa, egurrezko txalaparta, perkusia eta dantzaz gozatzeko aukera ere izango dela jakinarazi du Etxebarrietak.

Bestetik, Golden Apple Quartet taldearen *Vamos que nos vamos* ikuskizuna ere izango da. Gainera, laukote ospetsuak bere

ibilbide oparoari amaiera eman dio, eta agur esateko ibilaldi horretan geldialdia egingo du azaroaren 24an, Leidor aretoan.

Aurretik «bira luze bat» dutela adierazi dute Loyola Garmendia eta Edu Errondosoro Golden Apple Quartet taldeko kideek; «gure ibilbidean egon garen leku guztietatik igaro behar dugu azkenean ikus gaitzaten, eta Tolosa leku horietako bat da, gure ikuskizun guztiekin igaro garela bertatik».

Ikuskizun horretan publikoa lehenetsi dutela zehaztu dute: «Jendeak ikusi nahi duenarekin egingo du topo, eta horretarako, publikoari gehien gustatzen zaizkion abestiak aukeratu ditugu». Hortaz, ikuskizunean denbora honetan ikusleekin partekatutako abestien ibilbide musikala egingo du taldeak.

SARRERAK

Goiuri Ezeiza Tolosako kultura zinegotziak herritar guztiak gon-

bidatu ditu prestatu dituzten emanaldietara: «Eguraldi ona egiten duenean kulturaz plazetan gozatzeko gustuko dugu Tolosan, baina uda amaitzen ari den honetan, aterpeak bilatzen ditugu eta horietako bat da Leidor aretoa». Bada, Leidor aretoan egingo diren ekitaldietarako sarrerak Kutxabankeko plataforman izango dira eskura, eta Topic-eko aretoan egingo diren ekitaldietarako sarrerak, berri, Topic zentroko webgunean.

ESZENA BONUAK

Eszena bonuetan berrikuntzak daudela jakinarazi du kultura zinegotziak. Aurrerantzean, eszena bonuak 45 euroko prezioa izango du eta, hori eskuratuta, udazkeneko programazioko emanaldi guztietara sartzeko aukera izango da, urriaren 20tik urtarrilaren 3ra bitarte. Bonua eta sarrera guztiak Kutxabankeko webgunean edo Leidorren eskuratu daitezke.

EGITARAUA

Urriak 20, ostirala

20.00. *El nadador de aguas abiertas*, Tanttaka konpainiaren antzez-lana, Leidorren.

Urriak 27, ostirala

20.00. *Sagastitarrak*, Txalo konpainiaren antzez-lana, Leidorren.

Urriak 28, larunbata

17.00. *Anbotoko Mari*, Logela Multimedialearen antzez-lana, Leidorren.

Azaroak 3, ostirala

20.00. *Arima*, La Pulga, Berriketan konpainiaren musika eta dantza ikuskizuna, Leidorren.

Azaroak 10, ostirala

20.00. *Good sex*, Maritxu, Ttipia konpainiaren antzez-lana, Leidorren.

Azaroak 17, ostirala

20.00. *Shine*, Lasala dantza konpainiaren dantza ikuskizuna, Leidorren.

Azaroak 18, larunbata

17.00. *Pailazokeriak*, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazen haur ikuskizuna, Leidorren.

19.30. *Birakabareta*, Pailaztana Junior, Pailaztana Klowen taldearen, Numen Dantza Eskolaren eta Gorpil Zoroak bikotearen haur ikuskizuna, Topic-en.

Azaroak 24, ostirala

20.00. *Vamos que nos vamos*, Golden Apple Quartet taldearen ikuskizuna, Leidorren. Taldeak lau hamarkadetan egin duen ibilbideari amaiera emango dio ikuskizun honenkin.

Abenduak 15, ostirala

20.00. *Hondamendia*, Artedrama Arte Eszenikoaren Plataformaren antzez-lana, Leidorren.

Abenduak 16, larunbata

16.30. *Emozio Festa!*, Ene Kantak taldearen haur ikuskizun musikala, Leidorren.

Abenduak 28, osteguna

19.00. *Pause*, Xabier Zeberioaren musika ikuskizuna, Leidorren.

Abenduak 29, ostirala

20.00. *El origen del hielo: Tributo a Frozen*, Vitamin konpainiaren haur musikala, Leidorren.

Abenduak 30, larunbata

19.00. Euskadiko Gazte Orkestraren eskutik musika klasiko emanaldia, Leidorren.

Urtarrilak 3, asteazkena

19.00. *Fantasi*, Eñaut Elorrieta bakarlariaren musika emanaldia, Leidorren.

Usabal itxita egotearen eraginari aurre eginez

Kiroldegia egoitza moduan duten kirol klubak hainbat bide jorratzen ari dira denboraldiaren hasieran; «oso gogorra» izaten ari dela diote

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosako Usabal kiroldegiko langileak greba mugagabea dauka, azpiegitura horren kudeaketaren esleipena duen BPXport enpresaren lan baldintzak ez dituztelako bidezkoak ikusten. Hori horrela, maiatzaren 8tik itxita dago kiroldegia, eta horrek eragin zuzena du bertan egoitza duten kirol klubetan.

Tolosaldeia IKT igeriketa taldearen etorkizuna «arriskuan» dagoela esan du Joseba Zubeldia teknikariak. «315 igerilari izan ditugu klubean eta bost teknikari. Une honetan lau teknikari gaudela. Gutxienez 200 igerilari martxan izan beharko genituzke klub bezala irauteko, baina une honetan 80 igerilari ditugu». Igerilari horiekin Villabona, Andoain eta Lazkao kiroldegian ari dira irailean zehar, eta gurasoek eramaten dituzte bertara. «Aste- an asteko plangintza egiten ari gara, eta urrira begira ez dakigu zer leku izango dugun».

Egoera horretan ez dute izen ematerik martxan jarri txiki- nentzat, eta egun ez dute 18 urte- tik gorako igerilaririk taldean. Azken horrek eragingo du klub- en arteko lehen mailako Espai- niako Kopari uko egitea. «Lor- pen historikoa izan da hori klu- barentzat. Guk ezin ditugu preso izan igerilariak, gurekin fitxa bat eginez, ez dugunean igerileku- rik. Urte luzez egin dugun lana pikutara joan zaigu», esan du Zu- beldiak. Ohiko txapelketei begi- ra ez dira oraindik jarri. «Denbo- raldiaurrean gaudela eta ez dugu oraindik txapelketen kezka. Iku- siko dugu nola gauden garai hori iristen denean».

Usabalgo igerilekua egoitza moduan duen beste kluba he- gats igeriketako Igarondo Urpe- koak da. Aurreko denboraldi- ren bukaera egin zuten mo- duan, Ordiziako igerilekuan ari dira entrenatzen, eta aste hone- tan hasi dira. «Bertan ere hegats igeriketako talde bat dago, eta beraiekin batera ari gara entre- natzen», esan du Gregorio Man- zisor taldeko kideak.



Atzo arratsaldean Tolosa CFko hainbat talde entrenatzen aritu ziren Usabalgo futbol zelaietan. I.G.L.

«21:00etatik 22:00etara entrena- tzen dugu, eta gure arazoa da ezin diogula txikienei ezer eskai- ni». Abuztuaren bukaera egin ohi dute ate irekien kanpaina, jende berria sartzeko, eta hori ezin izan dute egin. «Pandemia- rekin eta oraingo egoera hone- kin, taldean jende berria sartzeko arazo handia izaten ari gara».

«USABALEN SARTZEA BESTE AUKERARIK EZ DUGU»

Tolosa CF klubak hainbat atal ditu eta horietako hiruk erabil- tzen dute Usabal kiroldegia. Fut- boleko atalak kanpoaldean dau- den belar artifizialeko eremuak erabiltzen ditu. Aurreko astean bertara sartzeko erabakia hartu zuten entrenamenduak egiteko. «Une honetan etsita gaudela», esan du futbol ataleko Jon Alda- zabal lehendakariak. «Ez dugu lekuri. Txapelketak hasi dira eta oso kaskar ari gara entrena- tzen. Orain arte Alegian moldatu gara, baina eskolak goiz eta arra- tsaldez hasi direnean, ez dago denentzat aukerarik, eta inguru- ko futbol zelaiak beteta daude- nez, Usabalen sartzea beste au- kerarik ez dugu».

Aurreko astean zein aste hone- tan sartu dira. «Badakigu ELA

sindikatuak salaketa bat jarri zuela. Udaltzainak joan ziren eta identifikatu gintuzten. Gu saiatu egingo gara erabiltzen ahal du- gun heinean», zehaztu du Alda- zabalek. «Hori erabiltzerakoan ez dugu aldagarik erabiltzen, eta ez dugu inongo langileren beharrik. Ez gara ari grebaren aurkako ezer egiten, ez beste al- dera egiten. Kluba bizirauten la- guntzen ari gara».

Klubean egun 23 futbol talde dituzte federatuta. Horietatik bi taldek Berazubini jokatzen dituz- te partidak, gizonen talde lehen taldea eta gizonen talde nagusia. Beste par- tidak jokatzeke Idiazabalera, Lazkao, Villabona eta Ale- giara ari dira joaten. «Laster has- ten dira liga guztiak, eta hilabete lehenago prestatzen hasten gara. Egoera larria da entrena- tzeke, ez dagoelako lekuri. Ezin da edozein lekutan entrenatu, futboleko botekin entrenatu be- har delako», zehaztu du Aldaza- balek. «Berazubini talde asko en- trenatzen ari dira; berez irailean belarrak perfektu egon behar zuen, eta txiki-txiki eginda dago».

Urrian hasten da futbol eskola eta bertan 250 neska-mutil dau-

dela izena emanda azaldu du Al- dazabalek. «Baina orain ez dugu baliabiderik hori aurrera erama- teko. Eskola kirolaren barruan dago, oinarritzat jotzen dena. Gutxienez zerbitzu batzuk es- katzen ari gara hori aurrera era- man ahal izateko».

Eskubaloiko jokalariek gaur egun Urnietan, Iruran, Tolosako Herrikiaren eta Anoetan ari dira entrenatzen, eta hurrengo aste- an ere ziurrenik Ormaiztegiara jo- angoko dira. «Toki faltan gaudela, entrenamendu gutxiago egiten ari gara eta denbora gutxiagoan. Baina lehentasun bat genuen, eta lortu dugu, hau da, talde guz- tiak martxan izatea», azaldu du Imanol Esnaola ataleko lehen- dakariak. «Eskola da martxan ja- rri ez duguna. Atzeratzea erabaki dugu leku gehiago izan arte, eta ea Tolosan aukeraren bat sor- tzen den, ez baitugu nahi hau- rrak kotxeetan batetik bestera jo- atea, edo garraio publikoan ibil- tzea».

Antolakuntza aldetik «erome- na» izaten ari dela gaineratu du Esnaolak. «Diru aldetik ere era- gina izaten ari gara, kantzak alo- katu egin behar direlako, eta au- rreikusita ez genituen gastu ba- tzuk izaten ari garelako. Horrez

gain, arriskua: lehen egiten ez zi- ren bidaiak egiten ari garelako, eta horrek kezkatzen gaitu».

Gimnastika erritmikoko atale- an, 65 gimnasta inguru aritzen dira Usabalen entrenatzen. «Fe- rialekuan berez 40 inguru izaten dira, eta orain Ferialekuan de- nak sartu behar ditugu. Beraz, egun batzuetan Usabalgoak eta beste egun batzuetan Ferialeku- koak aritzen dira», esan du Aran- txar Aristondo ataleko arduradu- nak. «Horrek esan nahi du astero talde batzuek saio bat galtzen dutela». Nabaritu dute behera egin duela izen emateak. «Saia- tzen ari gara eskaintzen bermatu nahi dugun kalitatea, baina ez da erraza izaten ari».

ENTRENAMENDUAK KALEAN

TAKE saskibaloia klubeko gizo- nezkoen talde nagusia Beasain- go kiroldegian entrenatzen ari da eta bertan jokatuko ditu etxe- ko partidak. Igoera lortu ondo- ren, denboraldi honetan EBA li- gan lehiatuko dira. «Hemendik bi astetara hasten da liga eta es- pero dugu nahiko ondo iristea», esan du Goar Artetxe TAKEko ki- rol zuzendariak. Emakumezko- en lehen taldea Ordizian ari da entrenatzen.

Beste talde guztiak «egoera zailagoan» daudela esan du Ar- tetxek: «Irtenbide bezala saski- baloi kantzak jarri ditugu Alon- degi plazan eta Amaroizko fron- toian. Beraz, entrenamenduak kalean burutzen ari gara. Beran- du iluntzen du irailean, baina komerikak izango ditugu urritik aurrera». Aukera hori dute baina baldintzak «kaskarrak» direla dio Artetxek: «Saskibaloia mun- duan klub guztiek kiroldegian entrenatzen dute eta guk kalean. Ez du zerikusirik prestakuntza aldetik. Gure harrobiaren egoera zaila da eta kezka handia dugu».

Judo Klub Tolosakoak maia- tzaren 7tik daude Ferialekuan. «Oraingoz mantentzen ari gara talde guztiak», esan du Oskar Gi- belalde klubeko arduradunak. «Aurreko denboraldia nolabait salbatu genuen, baina berri bat hastea baldintza hauekin oso go- gorra da. Ez dago aldagarik eta bainugela bakarra dago. Tata- mia mugitu egiten da eta egune- ro egoki jarri behar izaten dugu». Erabiltzen ari diren tatamia Gi- puzkoako Federazioarena da, eta ez dakite noiz arte eduki ahalko duten. «Ferialekuan ego- teak izen emate kopuruan eragi- ten ari da», gaineratu du Gibelal- dek. «Gure helburua da Usaba- len ematen genuen zerbitzu be- rata baina Ferialekuan askoz zailagoa da».



Irurako Kultur Mahaian biltzen diren eragileek aurkeztu zuten joan den astean San Migel jaietarako prestatu duten egitaraua. J.M.

Festa berdinzaleak egiteko deia

Ostiralean hasi eta bi asteburutan luzatuko dira Irurako jaiak; urriaren 8an egingo dituzte azkeneko ekitaldiak jubilatuz eguneko egitarauarekin

Jon Miranda

Irurako jaiak etzi abiatuko dira. Festak aurkezteko agerraldia egin dute Irurako Kultur Mahaian biltzen diren elkarteetako eta udaleko ordezkariak. Gorka Murua alkateak eskerrak luzatu dizkie mahaian biltzen diren eragileei, «egitarau erakargarria osatzeko egin duten ahaleginagatik». Duela hilabete batzuk hasi ziren antolaketa lanetan eta alkateak gogoa izan ditu festak aurrera ateratzeko herriko enpresa eta saltokiek eman duten laguntza.

Lanean ibiliko diren boluntarioekin ere akordatu da Murua eta egingo duten lana eskertu du.

Idoia Garaialde zinegotziak azaldu du nola erabaki duten herrian festei hasiera emateko txupina nork bota. «Prozesu ireki bat zabaldu genuen eta herritarrek erabaki dute Irura Moretuz talde feministak hartzea festen hasierako suziria pizteko ardura». Duela urte gutxi sortu zen Irura Moretuz eta Garaialderen iritzian, «aurretik hutsik zegoen espazio bat bete du taldeak eta lan handia egin du; herritarrek balioa eman

diote lan horri eta horregatik erabaki dute txupinazoa botatzeko ohorea Irura Moretuz ematea». Eskertuta agertu da talde feministako kide den Marina Etxarri.

Irurako Kultur Mahaia osatzen duten eragileak bildu dira aurkezpenean, hala nola, Irura Bizi, Irurako Gazte Asanblada, ikastola, irakurle taldea edota erretiratu taldeetako kideak.

PROTOKOLOAREN AURKEZPENA

Irurako Udalak herriko jaietan eman daitezkeen indarkeria sexista kasuen aurrean erantzuteko

herri mailako protokoloa aurkeztu du. Herritar guztien eskura informazio «gardena eta eraginkorra» jarri nahi dute udal ordezkariak eta protokoloa osatzen jardun duten eragileak, indarkeria sexista kasu baten aurrean nola jokatu jakiteko. Hiru esparru jorratzen ditu protokoloak: Jai giroan eman daitezkeen eraso sexistaren inguruko prebentzio lana bideratzea; biktimari arreta egokia eman ahal izateko baliabide eta urrats egokiak eta zehatzak finkatu eta herritarren eskura jartzea; eta erantzun instituzionala

eta publikoa antolatzeko irizpideak finkatzea.

Horretarako indarkeria sexista deuseztatze baliagarriak diren baliabideak finkatu dituzte protokoloan. Alde batetik, herritarren inplikazioa eta esku hartze zuzena sustatzen duten bideo bat grabatu dute eta jaietan esanguratsuak diren hainbat ekimenetan proiektatuko da. Bestalde, eraso baten aurrean eman beharreko urratsak jasotzen dituen orria ere jarriko dute, bertan modu grafikoan azaltzen dira hartu beharreko erabakiak. Azkenik, irailaren

JAI EGITARAUA

Irailak 22, ostirala

18:30. Agurra, txupinazoa eta herensugearen jaitsiera.

Ondoren. Kalejira buruhandiekin, erraldoiekin eta Loatzo musika eskolako musikariekin.

19:00. III. Gazteak Xare Irekia eta V. San Migel Xare Irekia Irurako Udala Sari Nagusia torneoaren finalerdiak Trinketeen.

21:00. Barrikotea San Migel plazan.
Ondoren. Iratzar taldea plazan.

Irailak 23, larunbata

09:00. Gazte-festaren hasiera.

11:00 – 13:00 eta 15:30 – 18:30.

Haur-parkea ikastolako patioan.

13:00. Gazteen dantza-soka San Migel Plazan.

14:00. Haurren bazkaria plazan.

17:00 – 20:00. Beldur barik gunea.

18:30 – 20:30. Poteo musikatuak Zutik elektrotxarangarekin.

23:30. Kontzertua Los Zopilotes Txirriak eta Muxutruk taldeekin.

Irailak 24, igandea

11:00. Patata-tortila lehiaketak haur eta helduentzat San Migel Plazan.

12:30. Plaza Abordaia kale antzerkia Deabrukeriak taldearen eskutik.

15:30 – 17:30. BeatBox eta Hip Hop DJ tailerra eta erakustaldia Odroth beatboxer txapeldunarekin.

18:00. Onintza abesbatza.

19:00. Sagardo dastatzea plazan.

*Egitarau osoa Ataria.eus-en

atarikideen
abontailak

BASAJAUN

Deskontu bereziak



MULTIOPTICAS TOLOSA

%15eko
deskontua



SENA MASAJE ZENTROA

%10eko
deskontua



OREAKO OSTATUA

%5eko
deskontua



ataria.eus/kideak



Herriko festetan betaurreko mo-
reak jantzita edukiko dituztela
esan dute Irura Moretuz taldeko
Begoña Vazquez eta Edurne Ayu-
sok. Talde horrek botako du etzi
festen hasierako txupinazoa. Era-
so sexistaren bat gertatuz gero he-
rriko emakumeak erantzuteko
prest egongo direla esan dute.

Nola jaso duzue txupinazoa bo- tatzeko ohorea?

Begoña Vazquez: Ezin sinetsi.
Guretzako izugarritzko ohorea da
txupina botatzea Irurako festet-
an. Ohorea eta ardura sentitzen
dugu.

Zerbait esateko asmoa duzue udaletzeko balkoira ateratzeko- rakoan?

Ayuso: Bai. Plaza guztia guri be-
gira egongo da eta baliatuko dugu
aukera. Marina Etxarri gure kide-
ak irakurriko du pregoia eta ondo
aukeratutako hitzak botako ditu.

Vazquez: Gure taldea sortu be-
rria da, ez daramagu hainbeste
denbora eta gure lana aintzat har-
tu izana eskertzekoa da. Are
gehiago pozten gara, ikusita par-
taidetza prozesu baten ondoren
erabaki dela nork bota suziria.

Noiz eta nola sortu zen Irura Moretuz?

Vazquez: 2019an kokatuko nuke
sorbua. Azaroaren 25aren buel-
tan udaletik mahai-inguru bat
antolatu zuten indarkeria sexistaren
inguruan. Esparru eta adin

«Garrantzitsua iruditzen zaigu talde feminista bat egotea Iruran bertan»

BEGOÑA VAZQUEZ MARIN ETA EDURNE AYUSO APAOLAZA
IRURA MORETUZ TALDE FEMINISTAKO KIDEAK



ezberdineko herriko zenbait
emakume bildu ziren saio hartan
euren iritzia emateko eta ekital-
diak arrakasta handia izan zuen.
Arrastoa utzi zuen mahai-inguru
horrek eta dagoneko talde femi-
nista bat sortzeko ideia hasi zi-
tzaigun buruan bueltaka. Gero,
pandemia etorri zen, itxialdia, eta
orduan ere ez zen gogo hori apal-
du. Nahiz eta norbera bere etxean
egon, antolatu genituen zenbait
ekintza. Behin aldi hori amaituta,

mugimenduari jarraipena eman
behar zitzaioala iruditu zitzaigun.
Taldea eragilea sortu genuen gida-
ritza lanetarako eta martxan jarri
ginen. Nahia bagenuen eta ikus-
ten genuen behar handia zegoela
herrian feminismoaren arloan
eragiteko.

Nola antolatzen zarete talde- an?

Ayuso: Bost emakume biltzen
gara talde eragilean. Saiatu gara
bertan belaunaldi ezberdinak is-

latuta egoten. Hilean behin bil-
tzen gara, gutxi gora behera. Ko-
ordinazio lana egiten dugu bertatik,
baina atzean talde zabalago
bat dago. 60 emakumetik gora
egongo gara Irura Moretuzen.
Nahiko talde handia da gurea be-
zalako herri txiki batentzat.

Vazquez: Gainera, herrian anto-
latzen diren beste ekitaldietan ere
parte hartu nahi izaten dugu geu-
re ekarpena eginez. Irurako Kul-
tur Mahaian hartzen dugu parte
beste eragileekin batera eta beti
presente egoten saiatzen gara.
Gure aldarrikapenak ikusarazi
nahi izaten ditugu herrian egiten
diren ekitaldietan.

Ayuso: Emakume asko gara bai-
na gustatuko litzaiguke gehiago
izatea. Horregatik deialdia egin
nahi diegu Irurako emakumeei
lotsarik gabe gerturatu daitezen.
Feminismoaren bidean sakon-
tzeko egindako proposamen guz-
tiak ongi etorriak izango dira.

Urteotan egindako zein eki- men azpimarratuko zenuke- te?

Vazquez: Gauza dezente antola-
tu ditugu. Martxoaren 8ko eta
azaroaren 25eko ekitaldiak urte-
rokoak izaten dira, baina Irurako
historian zehar garrantzitsuak
izan diren emakumeen ekarpena
aitortuz antolatu genuen ibilbi-
dea azpimarratuko nuke nik ga-
rrantzitsu gisa.

Ayuso: Bai, ederra izan zen hori.
Eskolakoek ere unitate didakti-
koa osatu zuten ibilbidearekin eta
proiektua aurkeztu genuen egu-
nean adineko emakumeak nola
bizi izan zuten ikustea guretzat
pozgarria izan zen. Memoria egi-
tea garrantzitsua da eta ekimen
horrek balio izan zigun kontzien-
tzia hartzeko. Ordura arte, asko ez
ziren jabetuko zenbateko ekarpe-
na egin duten herriko emakume
askok. Aurrera egiteko atzera be-
giratu behar da eta egindako lan
hori baloratu.

Zein erronka daukazue aurre- rabegira?

Ayuso: Askok. Oraindik ere pa-
triarkatua gure gizartearen sus-
traietan errotuta dago eta horre-
gatik iruditzen zaigu garrantzi-
tsua herritik bertatik lanean
hastea. Garrantzitsua da eta be-
harrezkoa, ezinbestekoa, talde fe-
minista bat egotea Iruran bertan.

Vazquez: Eskualdeko gainerako
talde feministekin saretuta gaude
eta parte hartzen dugu antolatu-
tako ekimenetan. Etxetik hasi be-
har da, dena den, gerora pauso
gehiago emateko.

Ayuso: Poliki-poliki emaitzak
ikusten joatea espero dugu, eta
atzetik datozen belaunaldiengan
nahiko genukeen begirada berri
hori, neurri batean orain guk Iru-
ra Moretuzen egingo dugun lana-
ren emaitza izango da.

23an, larunbatekin, Gune Mo-
rea izenekoa kokatuko dute herri-
ko San Migel plazan 17:00etatik
20:00etara.

Udal ordezkariak onartu dute
indarkeria sexistari aurre hartze-
aren ardura instituzioek dutela,
baina Noelia Lataburu Berdinta-
sun zinegotziak adierazi du, he-
rritar guztien inplikazioa ezinbe-
stekoa dela, indarkeria hori desa-
gerrarazi eta erabat
deuseztatzeko. «Horregatik, pro-
tokoloak oinarri sendoak behar
zituela jakinik partaidetza proze-
su bat jarri genuen martxan». Iru-

rako ordezkari politikoak eta tek-
nikariak, Kultur Mahai osatzen
duten elkarteak egon dira lan
saioetan.

Dokumentua aurkezteko age-
rraldian Irura Moretuz taldeko
kide eta Kultur Mahaian parte
hartzen duen Edurne Ayusok
adierazi du, elkarlanean sortuta-
koa izatea dela protokoloak duen
balio erantsia. «Esku artean du-
gun tresna hau sortzeko eztabai-
datutakoak, hausnartutakoak eta
oro har egindakoak uzten du age-
rian dokumentuak duen balioa».

Irura Moretuzeko kideen uste-

tan, oraindik ere indarkeria sexistaren
inguruko adierazpenak
ematen dira jaietan eta hauei au-
rre hartzeko tresna egokituak be-
har dira, errealitateari egokituak.
«Ez dadila dokumentu hutsean
geratu eta izan dadila indarkeria
sexistaren aurkako jarrera aktibo
eta erantzunkidea bideratzeko
gai den tresna», esan du Ayusok.
Gorka Murua alkateak, bukatze-
ko, San Migel jaiak, «aske, ilusioz,
errespetuz eta berdintasunean»
gozatzeko desioa luzatu die herri-
tarrei eta festetara joango diren
bisitariei.



Atzo arratsaldean egin zuten protokoloaren aurkezpena Irurako udaletxean. J.M.



Epaimahaiaren saria

ARRI
STUDIOA

Argazki ikastaroa

Zure maila edozein dela ere,
3 orduko bakarkako ikastaroa
Arri Studioaren eskutik

Aroztegieta kalea 11, Tolosa
arristudioa.com · 943 67 17 17

ataria.eus-eko
erabiltzaileen saria

Albizturko
Ostatua

Lau pertsonarentzako
asteburuko menua
Albizturko Ostatuan

Herriko Plaza, Albiztur
943 00 59 22

atarikide saria



Arri Studioak egindako
barruko argazki sesioa

Aroztegieta kalea 11, Tolosa
arristudioa.com · 943 67 17 17

Bozkatu
gustukoena



Ataria.eus



Zuriñe Iglesias Sarasola Tolosa

«Asko» disfrutatu dute aurten arraunean Ane Sanchez (Anoeta, 1998), eta Xubane Uribarrena (Trintxerpe, 1999) Lugañene-ko arraunlariak. Ligako hamabi banderetatik bost astindu dituzte, eta Zarauzko Ikurrina prestigiotsua aurrenekoz irabazita eman zioten amaiera ligari. Hori gutxi ez, eta sasoiari bukaera borobila eman diote Kontxako Banderan gailenduta. Uribarrena Lizartzan bizi da, eta egindako denboraldiagatik omenaldia egingo diote bertan, Otsabio kirol elkarteak antolatuta, etzi, 20:00etan.

2021ean ezin izan zenuten Kontxa behar bezala ospatu Covidagatik. Aurten, ordea, bai. Nola joan zen ospakizuna? Xubane Uribarrena. Berezia izan zen. Prestatzaile fisikoak asotean zehar esan zigun Kontxa dela kaia barruan branka sartzea eta ikustea jende guztia nola emozionatzen den. Hori bizitzea falta zitzaigun, eta orain konturatu gara nola den garaipena modu batera edo bestera bizitzea. Ni emozionalki oso blokeatuta nengoan; familia guztia hor zegoen, jendearen aurpegietan ilusioa ikusten zenuen, jendeak eskertu egiten zizun egindakoa... Sekulakoa izan zen, eta ez bakarrik arrapalan.

Gero arratsaldean, Konstituzio plazan, ni donostiarra eta danborrada zalea izanda, niretzat balkoi hori da... Donostiar batentzat oso gauza handia da; bertara ateratzea, jendea hor zain ikustea, eta pertsona bat atera eta jendea builaka hastea... oso-oso berezia izan zen. Azkenean ez zeuden bakarrik gure zaleak, talde askotako zaleak ere bazeuden. Oso eskertuta gaude.

Ane Sanchez. 2021ean gure arteko ospakizuna izan zen, guk bakarrik ospatu genuen bandera hori, inor gabe. Eta jendearekin emozio hori partekatzea sekulakoa da; familiarekin besarkatzea, malko asko, irribarreak, builak... Eta horrez gain, ontzira bandera astintzera denak igo ginen. 2021ean Andrea [Astudillo patroia] bakarrik igo zen, eta Kontxako Bandera astintzea hori da, demostratzea zuk irabazi duzula bandera. Ontzi horretan zuk ere astintzea bandera, eta ez patroiak bakarrik. Emozio handiko eguna izan zen.

Uribarrena: Barkutik kaia beste modu batera ikusten duzu. Al-tuera horretatik begiratzen duzu eta dena beteta ikusten duzu, kolore pila bat ikusten dituzu...

<<Asko disfrutatu dugu, bandera guztiak ospatu ditugu azkenak izango balira bezala>>

ANE SANCHEZ ETA XUBANE URIBARRENA ARRAUN LAGUNAK-eko ARRAUNLARIAK

Denboraldi borobila osatu dute Ane Sanchez eta Xubane Uribarrena Arraun Lagunak-eko arraunlariak, Euskotren Liga eta Kontxako Bandera bigarren ez irabazita; Donostiako arrapalan bizitakoa «sekulakoa» izan zela nabarmendu dute



Z. IGLESIAS

Gero, bertatik jaisten zara eta piragua asko genituen inguruan, eta jendeak trainerura jauzi egiten zuen bandera ukitzeko, eta epaileak haserretu egin ziren. Baina zu urduritasun puntu horretan zaude, denei baietz esaten... Sekulakoa izan zen.

Kontxako bigarren jardunaldian indar erakustaldia eman zenuten, jardunaldi bateko errekorra hautsita (10:23.28) —zuena, 2021ekoa—, eta bi jardunaldiak batutakoa (21:01.14). Errekor bikoitza.

Horrela irabazteak beste aho zapore bat uzten dizue?

Sanchez: Irabaztea sekulakoa da, eta errekorra egitea... askoz gehiago. Duela bi urte irabazi genuenean, bagenekien jardunaldi bateko errekorra errazagoa zela gainditzea, eta bi egunetako errekorra jaistea asko kostatuko zela uste genuen. Ba, bi urtetan jaitsi dugu. Sekulako lana dago, eta hori lortu dugu besteak gu bezain onak direlako. Aurkari onak izan ditugu, eta horrek emakumezkoen arraunari seku-

lako bultzada eman dio, maila handituz.

Uribarrena: Larunbatean kontxez etorri ginenean Aneri zera esan nion: «Bihar errekorra egiteko eguna da». Helburu horrekin ateratzen zara, eta entrenatzaileak ere beroketan ondorengo esan zigun: «Gaur denbora honetatik gertu ibiliko gara». Bandera astintzeko unean barkuan ginela 10:23 egin genuela esan zidaten, eta orduan ohartu nintzen aurreko denbora hobetu genuela eta ez segundo batean.

Sanchez: Zortzi segundo dira, asko da.

Uribarrena: Hori esan zigutenean, taldeko kideok segituan galdetu genuen ea bi jardunaldietako errekorra egin ote genuen. Baietz esan zigutenean... Sekulako lana egin dugu, eta asko estutu behar izan dugu gauden tokira iristeko.

Tolosaldeak Kontxako lehen jardunaldian estropada irabazi zuen. Beraiek ezin sinetsita zeuden. Zuek nola ikusi zenuen?

Sanchez: Urte guztian egon dira muturra sartzen. Zierbenan ere bigarren geratu ziren bi segundorengatik. Beraiek ere sekulako maila erakutsi dute. Oso talde gaztea da, eta agian duten taldea kontuan hartuta talde onena izan da. Sorpresa izan dela? Sorpresa izan da Kontxan izan delako, bestela ez litzateke sorpresa izango.

Uribarrena: Bai, gehien bat Kontxan izan delako da. Pena dut beraiegatik, saria iritsi delako bandera gabe. Ligan izango balitz, beste modu batera har-

«Aurten hasieratik bukaerara egin dugu arraun disfrutatzen, presiorik gabe, jakinda zenbat kostatzen den bi sari potolo horiek lortzea»

**XUBANE URIBARRENA
ARRAUNLARIA**

«Zortzi ontzi izateak neska gehiagok beren ametsa betetzeko ematen du aukera»

**ANE SANCHEZ
ARRAUNLARIA**

tzen da. Izan ere, bat-batean Kontxan lehen postuan geratzen zara, berez, indartsuagoak diren taldeen aurretik. Beraiek izan zuten emozioa normala da. Azkenean sari material hori falta izan zaie, baina niretzat ez da sorpresa izan. Ikustea besterik ez dago nola atera ziren estropadan, kamerak-eta ikusten badi-tuzu ikusten da dena ematera atera zirela, hustu egin zirela, eta merezitako lehen postua eduki zutela.

Sanchez: Beste taldeek baino askoz ilusio handiagoa zuten. Ez zuten ezer galtzeko, eta dena irabazteko. Presioa esaten da; hiru talde geunden faborito moduan eta Tolosaldea iristen da eta sorpresa ematen du. Ilusioak eraman zien hori lortzera.

2021ean bezala, Euskotren Liga eta Kontxako Bandera irabazi dituzue. Aldea al dago bata eta bestearen artean?

Uribarrena: 2021ekoan ez nuen disfrutatu ez ligaz ezta Kontxaz ere. Irabazten duzu eta hor gertatzen da, eta gero gogoratzen zara eta esaten duzu: «Hori nahi dut berri». Baina aurten hasieratik bukaerara egin dugu arraun disfrutatzen, presiorik gabe, jakinda zenbat kostatzen den bi sari potolo horiek lortzea. Oso desberdin bizitu ditut bi urteak. Taldeak hasieratik bukaerara disfrutatu du eta uste dut horrek egin duela aurtengoa desberdin. Askotan buruaren kontua ere bada disfrutatzearena, baita taldearen dinamika ere.

Sanchez: Hori da. Gure prestatzaile fisikoak behin eta berri esaten zigun disfrutatzeaz azken balitz bezala, eta egia da. Ez dakigu noiz izango den gure azken garaipena, azken estropada... Adibidez, iaz asko sufritu genuen urtea izan zen, eta orduetik asko ikasita etorri ginen. Bandera bakarra irabazi genuen, Bilbokoa. Eta agian azkena da, eta ez dakigu. Horregatik, aurten asko disfrutatu dugu, bandera guztiak ospatu ditugu azkenak balira bezala. Sekulako ospakizunak egin ditugu kontziente garelako agian datorren urtean dena hankaz gora jarriko dela, eta agian ez dugula ezer irabaziko.

Denboraldi osoa kontuan hartuta, zein momentuarekin gertatzen zarete?

Uribarrena: Momentu askorekin, asko disfrutatu dudalako liga osoa. Niretzat, adibidez, Lekeition nola egin genuen arraun... Uste dut ez dudala inoiz hainbeste gozatu asteburu batez. Eta gero Zarauzko Ikurri-neko lehen jardunaldia. Nik esan nuen ez nuela gustura arraun egin, azkenean zaila zegoelako,

baina taldearen indarra sentitzea, jarraitu egingo genuela atzean egon arren, eta irabazi genuen moduagatik, iruditzen zait oso estropada berezia izan zela. Gainera, ez zait inoiz asko gustatu Zarauzko estropada, baina egun hartan zeraz konturatu



«Tolosaldea erreferente oso positiboa da emakumezkoen arraunarentzat»

ANE SANCHEZ
ARRAUNLARIA

nintzen: «Hara! Begira zer lortzeko gai garen, eta zer modutan».

Sanchez: Ni liga irabazi genuen momentuarekin eta Kontxarekin gertatzen naiz. Talde guztiak ospatzen dituen momentuak direlako. Beste banderetan hamahiru arraunlari eta patroia doaz eta horiek ospatzen dute. Eta liga eta Kontxa irabazten dituzunean talde osoa gaude; prestatzailea, medikua, entrenatzailea, kanpokoekin ere ospatzen duzu... Momentu horiekin gertatzen naiz, denak elkarrekin bat eginda ospatu ditugunak. Eta gero Xubane esan duen bezala, atzekoz aurrera egin ditugun estropada guztiak. Horrek sekulako indarra ematen dizu, eta estropada oso onak egin ditugu.

Zortzi ontzi aurreneko Euskotren Ligan. Zer balorazio egiten duzue?

Sanchez: Balorazioa uste dut positiboa dela. Guztiok genuen gure mailako jendea: Hondarri-

bia eta Hibaikaren artean lehia egon da, baita Tolosaldea eta Hondarribiaren artean ere, ohorezko txandan sartzeko. Nahiz eta kostaldekoek ez duten jaso sari hori, ezin izan dutelako ohorezko txandan askotan lehiatu. Positiboa da hainbeste ontzi ikustea eta hain maila altuan. Agian, mutiletan ez bezala, nesketan ikusten da arrauna aurrera doala eta geroz eta denbora hobea egiten direla. Bestalde, bigabea iruditzen zait Galiziako bi taldeak azkenak geratuta, Hibaikak, seigarren egin duela, kanporaketak jokatzea. Alde horretatik uste dut gauzak gaizki egin direla eta oraindik gauza mordo daudela hobetzeko, baina pauso bat da.

Uribarrena: Gero ere asko kritikatu da Euskotren Ligan atzean egon diren horiek oso atzean geratu direla. Baina gero mutilen ligan ere lehenaren eta azkenaren artean, denbora aldetik aldeak nahiko berdinak dira, eta badiudi emakumeak garenez tar-teak oso handiak direla, eta lehenak minutu bateko aldea ateratzen diola azkenari eta lotsagarria dela hain gaizki gertatzea. Baina mutiletan sailkapena ikusten baduzu, ontzi indartsuek atzekoei beste horrenbesteko aldea atera diete. Uste dut hor kritikoagoak izan behar garela, eta pixka bat gehiago jakin arraunaz, bi aldeak begiratzeko. Anek esan duena, kanporaketetara zein doan edo zein ez, beste era batera egin behar zen, ez delako saritzen talde bateko kirol meritu udara guztian zehar.

Sanchez: Zortzi ontzi izateak ematen du aukera neska gehiagok beren ametsa betetzeko. Arraunlari baten ametsa izaten da gorengo mailako liga batean aritzea eta Kontxan, eta horrek aukerak zabaltzen ditu arraunlari gehiagok dugulako aukera horrelako mailan aritzeko.

Tolosaldeak bigarren urtea du Euskotren Ligan, eta ohorezko txandan egonkortu da. Nola ikusi duzue etxeko trainerua?

Uribarrena: Uste dut txalotzekoa dela egin duten lana, eta ez da aurtengo kontua bakarrik.



«Momentu horiekin gertatzen naiz, denak elkarrekin bat eginda ospatu ditugunak»

XUBANE URIBARRENA
ARRAUNLARIA

Jada urteetako lana da, eta merezita dute dauden tokian egotea. Lana modu koherentean ari dira egiten; etxeko jendearekin, gazteak animatzen, eta neska asko mugitzen dituzte bateletan zein neguan zehar traineruan. Herria inplikatur dagoela beraiekin ere ikusten da eta uste dut pauso horiek egiten jarraitzen badute, hurrengo urtera begira, aurten jada aurrean egon badira, hurrengoan askoz ere aurrerago eta benetako borrokan sartzeko aukera izango dutela; oinarria mantenduta eta errefortzu txiki batzuk gehituta. Hondarribiaz hitz egiten da mutiletan harrobia dutela-eta, iruditzen zait Tolosaldea alderdi horretan erreferente oso positiboa dela emakumezkoen arraunarentzat.

Kontxako bigarren jardunaldiaren ostean, Tolosako Udalak harrera egin zien arraunlariei. Barnealdeko kluba izanda, garrantzitsua

iruditzen al zaizue harrera egitea arrauna sustatze aldera, eta umeek erreferenteak izan ditzaten?

Sanchez: Gure ametsa ere bazen Tolosaldeko traineru bat izatea, eta jendearen babes hori izatea... Arrapala urdinez bete zitzaien, eta sekulako balioa du horrek. Askotan ez gara kontziente Tolosaldeko traineru batek mugitzen duen jende mordoaz. Oso onuragarria da, eta umeentzat ere bai. Oso jende gaztea dago, egongo da jendea ez duena kasik arraun egin urte osoan, baina jada horren parte izatea, eta giroan egotea, sekulakoa da.

Orain atseden hartzeko garaia duzue. Baina, hurrengo urtera begira, zer asmo duzue?

Sanchez: Hori gai tabu bat izaten da. Auskalo! Lehenengo ikusi behar da taldeek nola eboluzionatzen duten, urtearen arabera talde batzuk desegin egingo dira, urtero bezala, beste batzuk berdin jarraituko dute eta hurrengo urtera begira oso positiboa izango da beraientzat. Denbora igaro behar da; ikusi behar du jendeak zer egiten duen, azkenean kromoetan jolastea bezala da.

Uribarrena: Bai, orain dena pixka bat airean dago. Gogorra egin zait denboraldia, baina egia da asko-asko disfrutatu dudala eta horrek motibazioa eman didala jarraitzeko. Beste momenturen batean galdetuko bazenit esango nizuke ez dudala jarraituko, baina oraintxe bertan... Eta ez bakarrik irabazteagatik, irabazi gabe ere, eduki dugun giroagatik gustura jarraituko nuke arraunean. Oraintxe puntu horretan nago; arraunean jarraitu nahi dut, baina ez dakigu ez non izango den, ezta nola ere. Ikusi behar da taldeek zer norabide hartzen duten, orain aldaketa askoren garaia da, eta horren arabera erabakiko dugu zer egin.

Hilberriak eta urteurrenak

atarian jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 130 € • Harpidedunentzat 65€

HANDIA (124mm X 63,5mm): 180 € • Harpidedunentzat 90€

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 80 € • Harpidedunentzat 40€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu



ASTEAZKENA, 2023KO IRAILAK 20
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Edoñ, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



«Solomilloa» baino, «azpizuna» egokiago

'Solomilloa edo azpizuna eskatu nahi duzuna!' kanpaina martxan da eskualdeko harategietan, euskararen erabilera areagotzeko

Josu Artutxa Dorronsoro

Euskararen erabilera areagotzea helburu duen kanpaina berria jarri dute martxan Galtzaundi Euskara Taldeak eta Tolosaldeko zenbait harategik: *Solomilloa edo azpizuna eskatu nahi duzuna!* Amasa-Villabonako, Ibarra-ko, Tolosako eta Zizurkilgo harategi guztiek parte hartuko dute.

Amaia Doyague Galtzaundi Euskara Taldeko kideak nabarmendu duenez, harategietako idatzietan euskararen erabilera areagotzeko konpromisoa hartzeaz gain, ahozkotasunean ere eragin nahi dute. «Bakoitzaren errealitatearen arabera, eman beharreko pausoak proposatu genituen, eta gero, hartu beharreko konpromisoak adostu ditugu; dagoeneko, aldaketak egiten ari gara». Horri lotuta, urriaren 2tik 21era bitarte bertako produktuak zozkatuko dituzte.

Hori dela eta, eskariak euskaraz egitera animatu nahi dituzte herritarrak. «Bezeroak ez dauka aitzakiarik euskaraz ez erosteko. Eskatu nahi den piezaren izena euskaraz ez jakinda ere, lasai eskatu daiteke euskaraz. Gainera, harategietako langileen %90 baino gehiago euskaldunak dira», azaldu du.

Harategiak «euskararen babesgune» ere izan daitezkeela



Eskualdeko harakinak, kanpainaren aurkezpenean. J. ARTUTXA

gaineratu du Doyaguek. «Zenbait bezero euskara-maila hobetu nahian dabilta, eta euskara erabiliz ikasten denez, garrantzitsua da eguneroko gauza txikiak euskaraz egitea. Bezeroek euskara praktikatzeko konfiantzazko komertzioak behar dituzte. Horretarako gune aproposak dira. Elkarrizketa laburrak izaten dira, oso zehatzak, testuingurua markatua da, produktuak ikusgai daude, eta horrelako elkarrizketekin hasi behar du euskara ikasten ari den batek».

HARAGI ZATIEK HIZTEGIA

Ahozkotasunaz gain, hizkuntza-paisaiak ere «garrantzia» daukala azpimarratu du Doyaguek. «Bezeroa hizkuntza batean edo

bestean komunikatzera gonbidatzen dugu. Zenbait bezero ohituta daude euskaraz *solomilloa* eskatzera, baina ez dago soberan *azpizuna* dela jakitea; eta asko dira gaztelaniazko izenekin eskatzen dutenak. Horiek ere pixkana euskalduntzen joan behar dugu, horrek berak euskara presenteari egoten lagunduko du eta».

Bai Galtzaundik, baita parte hartuko duten harategiek ere, herritarrak euskaraz erostera gonbidatu nahi dituzte. Horretarako, gaurtik aurrera animalien zatien hiztegiak banatuko dituzte saltokietan. «Ahal bada, euskaraz esan ditzatela piezen izenak», esan du Elena Muñagorri Tolosako harakinak.

ASTEAZKENA 20

AGENDA

Deialdiak

Amezketak. Sexualitateaz gehiago ikasteko tailerra. Gaztelekuan, 16:00etan. Gazteel bideratuta, 18:00etan.

Alegia. Euskara eta kulturartekotasuna Alegiako eskolan proiektuaren aurkezpena. Inaxio Begiristain kultur etxean, 17:00etan. Umeak zaintzeko zerbitzua izango da. Aldibereko itzulpena egongo da.

Tolosa. Biodibertsitate gunea: espezie exotiko inbaditzailei buruzko mintegia, Antxon Bandres Bidaierien Txokoan, 18:00etan.

Erakusketak

Ibarra. Marce Tenak zuzenduriko Marrazketa, pintura eta adierazpen artistikoa tallerreko lanen erakusketak, kultur etxean.

Tolosa. Laborde Labayen - Garai bateko paperezko isladak erakusketak, 3 tabernan. Laborde Labayen, arte grafikoen lantegia, Tolosan 1904tik 1974ra martxan egon zen. Bertan egindako lanak XX. mendeko historiaren testigantza dira. Desagertu aurretik Vicente Ameztok kartel sorta bat salbatu zuen. Horietako 25 daude erakusketan.

Tolosa. Mugarik gabe zizelkatzen. Grenzeloos Beeldhouwen, Aranburu jauregian. Herbehereetako eta Euskal Herriko 57 eskultoreen obrak jasotzen ditu erakusketak. Euskal Herriko Azken Muga eta Eskuahaldunak eta Herbehereetako Kunstgilde eta Stichting elkarrean lankidetzari esker osatua.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Cecilia Bronte Posada. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

TOLOSA. Gauekoa. Leire Andres Morant. Zabalarreta lorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro eguzkitsua.

Goizean zerua urdin agertuko da eta giro eder eta eguzkitsua izango dugu. Arratsaldean goi-hodei fin batzuk salbu, giro ederrak jarraipena izango du. Goizean hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, arratsaldean ipar-ekialdeko nagusituko delarik. Tenperatura igo egingo da, 25-27 graduan joz goia.



Bihar. Giroa erabat aldatuko da. Goizean hego-mendebaldeko haizearekin, hodeiak eta ostarteak eta giro oso atsegina izango dugu. Egurditik aurrera, haizeak ipar-mendebaldeko egingo du, fronte bat iritsiko da eta horrekin zerua estali eta euritara joko du. Zaparradak nagusituko dira, tarteka mardul botako duelarik. Tenperatura 23-24 gradura igoko da, baina arratsaldean nabarmen freskatuko du.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

 **solumobel**

Adinekoiei
segurtasuna eta **irisgarritasuna**
ematen dien soluzioa.

Altzari egokituen soluzio integralak

Egokitu zure sukaldea
zure bizitzara

1.990€* -tik hasita



*Basic-pack eguneraketa.

Informazio gehiago:
www.solumobel.com
943 96 89 64

